

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>abarrots</b> 'zarata'	«...hor dabilta nire gorputz-ariman bueltaka, beren <b>abarrotsez</b> ernegatzen.»	(45)
<b>aberaska</b> 'erleen ezti gordetegia'	«Arina eta amoltsua, <b>abaraska</b> bezain gozoa.»	(18)
<b>afanean</b> 'jo ta ke lanean'	«...karretera ondoko baserrietan traktoreak ari ziren <b>afanean</b> .»	(14)
<b>ahardi</b> 'zerri emea'	«Esan zezakeen (...) <b>ahardia</b> beteta zegoela...»	(35)
<b>aidanean</b> 'antza, dirudienez, aidanez'	«... <b>aidanean</b> garai hartako usadioa zen, gurasoen baimenik gabe ezer ez egitekoa.»	(22)
<b>aihuma</b> 'intziri'	«...zerbait gertatuko zela pregonatzen zuten ikuiluko abereen <b>aihumek</b> .»	(60)
<b>albaindu</b> 'ilbaindu, behin-behineko jostea	«Orduan oroimenak <b>albaintzen</b> zituen buruaren ardatzean.»	(20)
<b>alboroke</b> 'otordu arina, zeozer ospatzeko'	«Partidaren bezperan <b>alboroka</b> moduko bat egin zuten ezkien plaza erdian, despedida moduan edaria kanpotarren kontura.»	(89)
<b>amatatu</b> 'itzali'	«Ez zen <b>amatatzen</b> galderaren garra...»	(98)
<b>amoltsu</b> 'maitakorra, ezti'	«Arina eta <b>amoltsua</b> , abaraska bezain gozoa.»	(18)
<b>anabasa</b> 'nahaspila'	«...bere barruan edari-kaxak eta periodiko paperak pilatzen dira, <b>anabasa</b> ilun batetan.»	(11)
<b>arakatu</b> 'miatu, aztertu'	«Herri osoa <b>arakatu</b> zuten, zoko guztiak miatu baina ez zuten kausitu.»	(37)
<b>armiarma</b> 'aramu'	«...pintura markak zabaltzen dira zabarki paretetan zehar, <b>armiarma</b> handien legez, denbora iraganaren seinale.»	(10)
<b>arranbel</b> 'uztaia, arkua'	«Domingo, bere senarraren eskuak, latzak, <b>arranbelaren</b> modukoak...»	(21)
<b>arrapaladan</b> 'arineketan, ziztu bizian, ahalean'	«Urteak pasa dira <b>arrapaladan</b> , udazkenean hegoarekin uso eta antzarren iladak Otamunoko gailurretik pasatzen ziren bezala.»	(16)
<b>artean</b> 'oraindik' (irag.)	«Aita ere hantxe zegoen, mutil koxkorra <b>artean</b> ...»	(38)
<b>artizar ura</b> 'ihintza, garoa'	«Larrua ikara zen eta <b>artizar urak</b> bustitzen gintuen zeharo.»	(56)
<b>arto-aletzen</b> 'artoa garantzen'	«...bazterrak errekistatzen ari nintzela topatu nuenean, <b>arto- aletzen</b> .»	(21)
<b>aspre</b> 'bortitz, latz'	«...Norteko haize hotz eta <b>aspreak</b> eraso egiten zidalarik...»	(42)
<b>astaina</b> 'astakirten, kirten'	«Ni <b>astaina</b> banintz bezala.»	(80)
<b>atarramendu</b> 'emaitza, fruitu, ondorio'	«Bazegoen hala ere beste argudio bat, sofistikazio eta <b>atarramendu</b> handirik gabe aldarrikatzen zena...»	(27)
<b>barren</b> (baieztapen baten indargarria)	«—Usoa haiz <b>barren</b> — nik beti.»	(50)
<b>barrunbe</b> 'barrua, barnea'	«Sua izeki zen ama Margaritaren baitan eta <b>barrunbea</b> erre zion azkenean, erraustu arte.»	(18)
<b>barrundatu</b> 'susmatu'	«Hala ere <b>barrundatzen</b> zuen Mandiolako Jesusak kezka bat.»	(41)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>belaze</b> 'belardi'	«Lorezko koroiez horniturik zegoenean eta <b>belazeetan</b> eguzkiak dirdira egiten zuenean...»	(24)
<b>bidarte</b> 'bidegurutze, kurtzedero'	«...auzora doazen bidexidorrak <b>bidarte</b> batetan elkartzen dira.»	(44)
<b>bidean</b> 'ordez, beharrean'	«...ahoarekin hitz egin <b>bidean</b> eskuez egiten zuen.»	(25)
<b>bidexidor</b> 'bideska'	«Zabaleta eta Barriolatik auzora doazen <b>bidexidorrak</b> bidarte batean elkartzen dira.»	(44)
<b>bigantxa</b> 'biga edo txahal gaztea'	«...txikitzen hasi ziren, behirik eta idirik handienak ere <b>bigantxa</b> baten tamaina hartuz...»	(32)
<b>bil-bil egin</b> 'batu-baturik'	«...atzeko bankoetatik pilotak botatzen zizkidaten, papera <b>bil-bil eginda</b> eta gogorra zenez min ematen zidan.»	(43)
<b>bisaia</b> 'begitartea'	«...nire aurpegiaren azpian haren <b>bisaia</b> somatzen nuen...»	(34)
<b>domeka</b> 'igande'	«...jotzen ditu ezkilak goiznabarreko mezatarako, arrats behean errosariorako, sapatoan bezperetarako eta <b>domekan</b> eguerdiko nagusirako.»	(10)
<b>dzangada</b> 'tragoskada'	«Mistela erronarekin edaten zuen <b>dzangada</b> batez, desagertu aurretik.»	(98)
<b>epuru</b> 'zuhaiska mota (Juniperus)'	«Sutaska piztuta eta sutan <b>epurua</b> , gar urdinetan erreaz.»	(84)
<b>erasan</b> 'ukitu, afektatu /eraso,ekin'	«Tximista batek zuhaitz bat erdibitzen duen erara halaxe <b>erasan</b> zion.»	(18)
<b>eremu</b> 'basamortu'	«Zer egin lezake sustraiak erreta dituen landarexka batek <b>eremuan?</b> »	(88)
<b>erlatz</b> 'teilatu hegala, hegia'	«Urretxindorrek urtero etortzen dira beren kabiak <b>erlatzetan</b> egiteko...»	(10)
<b>erpin</b> 'ertz'	«Zabaleta aldera doan bide <b>erpinetik</b> itzal baten modukoa ikusi zuen ...»	(80)
<b>erretolika</b> 'kopla, roilo'	«...bere katemea besoetan hartuta <b>erretolika</b> bera botatzen zidana...»	(102)
<b>erronka</b> 'desafioa'	«Azkenean <b>erronka</b> eta lehia eta dema.»	(27)
<b>eskerga</b> 'itzela'	«...eta gero ideia horrek bueltak eman zituen bere buruan azkenean bola <b>eskerga</b> bihurtu arte.»	(20)
<b>eskuarki</b> 'gehienetan, arruntean'	« <b>Eskuarki</b> ez da horren zentzua esplikazioekin xahutzen.»	(109)
<b>ezari-ezarian</b> 'astiro-astiro, emekiro'	« <b>Ezari-ezarian</b> prozesio bat balitz bezala...»	(54)
<b>ezker aihen</b> 'huntzorria	«...pareta ospel batetik nekez igotzen den <b>ezker aihenaren</b> moduan.»	(16)
<b>ezki</b> 'zuhaitz mota bat (tilo)'	«Elizak bakarrik irauten du (...) zutik <b>ezkien</b> plaza erdian...»	(10)
<b>fardel</b> 'harroputz'	«Xipriano Kurtzetako arotza zen, kankailu eta <b>fardela</b> ...»	(26)
<b>galant</b> 'itzel, eder'	«Horregatik beharbada biltzen dira neguko gau gordinetan auzoko katu eta kateme makakorro <b>galantekin</b> .»	(11)
<b>galbahe</b> 'bahea(harea,aleak eralkitzeko)	«Arratsaldea filtratzen genuen geure ezpainen <b>galbahetik</b> .»	(106)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>gandu</b> 'lausoa'	«...aurrean zuena difuminatzen baitzuen, <b>gandua</b> balitz bezala.»	(80)
<b>garotan</b> 'irak ebakitzen'	«Txikiena, Antonio, <b>garotan</b> ari zen batetan joan zen inork ez daki nora...»	(21)
<b>gau-atorra</b> 'kamisioia'	«...arrea: lihozko bi izara pare bordatutakoak, artilezko bi tapaki, <b>gau-atorra...</b> »	(21)
<b>gaztainkara</b> 'gaztain kolorekoa'	«...zuhaitzak eta belazeak kolorez aldatzen hasi ziren: hasieran <b>gaztainkara</b> , gorri zurbila ondoren eta azkenean bermelioia.»	(76)
<b>geroenean</b> 'gero, ostein'	«Iragarki bat jarri zuten <b>geroenean</b> paretan itsatsita ...»	(89)
<b>girli</b> 'adur, lerre'	«Ahoa satisfazioz zuen irekita, <b>girli</b> dariola.»	(81)
<b>gobernatu</b> 'jagon, zaindu, mantendu'	«Azken egunetan ez zen gauza etxea <b>gobernatzeko</b> baina horrek ez zuen samintzen, bere etsipena aspaldikoa baitzen...»	(20)
<b>gogoenean</b> 'gogoan	« <b>Gogoenean</b> daukat gertatutakoa.»	(55)
<b>goiznabar</b> 'goiztiri, goizalde	«...zazpiretako jotzen ditu ezkilak <b>goiznabarreko</b> mezatarako...»	(10)
<b>guri</b> 'biguin eta leun'	«Ama berriro ikusiko zuela eta ni arbola bezain mardul, sendo eta <b>guri</b> haziko nintzenaren esperantza.»	(19)
<b>hagin</b> 'zur mota	«Aspaldiko etxe guztien moduan sapaia altua dauka, eta zolua <b>haginez</b> dago landua.»	(10)
<b>harlosa</b> 'harlauza, harrizko lauza'	«Edifizio horien luzagarri gisa ezkien plaza <b>harlosezkoa</b> .»	(12)
<b>hasperen</b> 'arnasa'	«...oinez bentaraino eta han <b>hasperen</b> hartu ondoren estazioraino ...»	(13)
<b>hats hartu</b> 'arnasa hartu'	«...hitzak metatu egin ziren aho sapaian, <b>hats hartzeko</b> ere traba eginaz.»	(20)
<b>herabeti</b> 'lotsati'	«Gizon ixil, <b>herabeti</b> , uzkur, kopetilun, zipotza.»	(12)
<b>hirusta</b> 'sekula belarra'	«...Fortuna lagun duzula jakinarazten duten <b>hirustaren</b> hostoak ...»	(17)
<b>idor</b> 'lehorra, ihartua'	«...jaten zutena belarra zela, mendietako zaingorri <b>idor</b> hori...»	(49)
<b>ingurumari</b> 'inguru'	«Berari eta bere <b>ingurumariko</b> lurrari lotua bainago oroimenean ...»	(13)
<b>inular</b> 'ilunabar'	«(Gerrak) <b>Inular</b> gorrien antzekoak ziren, ikusgarriak, lekutuak, baina pai-ratzen ziren bertan baleude bezala.»	(37)
<b>itsumena</b> 'itsadura'	«Ezabatu zen zeruertzean haren ezpain gozoen <b>itsumena</b> .»	(70)
<b>itxuraldatu</b> 'antzaldatu'	«Amak fantasmaz <b>itxuraldatzarekin</b> gorputz ahul eta kaxkar haren azpian anima sendo, indartsu eta gogoz betetakoa zuela frogatu zuen.»	(73)
<b>izar loka</b> 'une batez erortzen ikusten dena'	«Zeruko ohantzean, adibidez, <b>izar lokak</b> ibiltzen dira abiada osoan eta ixtant batez irauten du haien dirdirak gure begien aurrean...»	(17)
<b>izara</b> 'maindre'	«Zabaletara ezkondu zutenean amak emandako arrea: lihozko bi <b>izara</b> pare bordatutakoak (...).»	(21)
<b>izeki</b> 'biztu, ixiotu	«Ehiztarien sena gainditu zitzairen, <b>izeki</b> beraien baitan otsoari ihizi aurrean pizten zaion errabia odoltsua.»	(54)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>izpi</b> 'erbatz, puska'	«...gari aleak, alpalpa <b>izpiak</b> .»	(46)
<b>jazarka</b> 'segika'	«Zaldi zuri baten gainean iritsi zen (...) Inkisizioa <b>jazarka</b> .»	(74)
<b>kankailu</b> 'balدارra/adimen gutxiko gizaki	«Xipriano Kurtzetako arotza zen, <b>kankailu</b> eta fardela...»	(26)
<b>kantzela</b> 'hesi	«Eliz saihtesean etxe handi bat dago, dotoreziaz eraikitakoa, indoanoarena, burdinazko <b>kantzelaz</b> inguraturik.»	(10)
<b>karia</b> 'zio, kausa, arrazoi'	«...nire antza zuela eta horren <b>kariaz</b> hasi nintzen egunero neure burua gelako ispilu lainotsu eta obalean begiratzen...»	(34)
<b>karraiatu</b> 'garraiatu, eraman'	«Zorabioak <b>karraitu</b> zituen maitaleak.»	(64)
<b>kopetilun</b> 'bekoskoa (tristura/haserre aurpegia)	«Gizon ixil, herabeti, uzkur, <b>kopetilun</b> , zipotza.»	(12)
<b>kriskitin</b> 'atzamar puntez ateratako hotsa'	«...alabak <b>kriskitinak</b> joaz dantzan ari zirenean.»	(52)
<b>laborri</b> 'izugarria, ikaragarria'	«...ez zuen aitortu nahi beldur <b>laborriak</b> harrapatua zuela.»	(30)
<b>laidogarri</b> 'iraingarria, mespretxugarria'	«...bere presentziak atzerritarra ekartzen baitzuen gogora eta hori gutxienez <b>laidogarria</b> zen.»	(76)
<b>lander</b> 'pobrea, txiroa'	«...horrela gabilta zaldia eta biok, judutar <b>landerraren</b> moduan.»	(75)
<b>letagin</b> 'hortz handi zorrotza'	«...baten batek esan zuenez, otsoek ez zuten haiek adinako <b>letaginik</b> .»	(49)
<b>lubera</b> 'lur biguin eta indartsua'	«Lau emakume haiek osatzen dute nire geografia intimoa, ni hazi naizen <b>lubera</b> .»	(18)
<b>makakorro</b> 'orroa, baurrea'	«Horregatik beharbada biltzen dira neguko gau gordinetan auzoko katu eta kateme, <b>makakorro</b> galantekin.»	(11)
<b>makulu</b> 'ezinduen euskarri bereziak'	«...zaharrak beren oroimenen <b>makuluetan</b> errealitateari forma eman nahian...»	(92)
<b>malo</b> 'maluta, mataza'	«Izara handi baten legez estali zuten landa osoa beren hostoen <b>maloek</b> , eta zerbait zegoen aidean euli eta liztor eta erleak erakarri zituena.»	(32)
<b>mandio</b> 'bihitegi, lastategi'	«...etxe osoa erre zion, <b>mandiotik</b> hasita aroztegiraino beltz-beltza utziaz.»	(31)
<b>mardul</b> 'osasuntsua, sendoa'	«Ama berriro ikusiko zuela eta ni arbola bezain <b>mardul</b> , sendo eta guri haziko nintzenaren esperantza.»	(19)
<b>marrumaka</b> 'orroaka'	« <b>Marrumaka</b> ari ziren idiak amonak utzi gintuenean.»	(85)
<b>marruskatu</b> 'gogor igurtzi'	«...ordurarte aho-sapaian itsatsirik egon ziren hitzak elkarri oparituz, bakoitza <b>marruskatuz</b> , zuen esanahia gastatu arte.»	(111)
<b>mauka-mauka</b> 'aho beteka'	«...kausitu ez zuelako beldurra hasi zitzaion <b>mauka-mauka</b> jaten.»	(66)
<b>mendre</b> 'urri, gutxi'	«...euriak gogor egiten zuenean, bere tantak orratz <b>mendre</b> baina indartsuak zirenean...»	(36)
<b>mengaizo</b> 'mendekua'	«Ez zuen hitzik egiten nirekin. <b>Mengaizoz</b> .»	(25)
<b>metatu</b> 'pilatu'	«...eta elkarri ez esandako hitzak <b>metatu</b> egin ziren aho sabaian...»	(20)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>min</b> 'maiteen'	«Laurak hizki berdinez hasten dira gainera, naturalezaren aberastasuna erakutsiz, <b>minenak</b> ditudan loreak bezala.»	(18)
<b>min izan</b> 'nahigabeturik egon'	«Erreka neska mutilen <b>min zen</b> .»	(91)
<b>motots</b> 'ile korapiloa, moinoa'	«...ezpain finekin eta ile beltz harekin, <b>mototsean</b> ixten zena buruan.»	(23)
<b>nabar</b> 'ilun'	«...haren begietatik gogoratzen dudana da <b>nabarrak</b> zirela.»	(45)
<b>nagi</b> 'alferra'	«...bere bizitzako azken urteetan ezindurik geratu zen arte, bere aulki kulunkarian geldu, <b>nagi</b> eta nare...»	(20)
<b>nano</b> 'epotxa, kakanarrua'	«...mukizuak adinakoak ziren <b>nano</b> haiek hainbeste argudio eta berriketa.»	(33)
<b>nini</b> 'betseina, begietako biribiltzoa'	«Nire <b>ninietaraino</b> sartu zen berak gaubelan igarotakoaren orduen arrastoa.»	(55)
<b>oldarka</b> 'indarka, bortizki'	«Izardia zerion <b>oldarka</b> .»	(60)
<b>ordoki</b> 'lautada'	«...urkiek beren eskuekin eraikitzen duten etorbide motz eta <b>ordoki</b> baten atarian.»	(9)
<b>ortzikara</b> 'ekaitza (?)	«Zabaletan askotan, <b>ortzikara</b> zegoenean (...) trumoi hotsek eta tximistek erabat beldurtzen ninduten.»	(36)
<b>ostots</b> 'trumoia'	«Ekaizpean, <b>ostotsez</b> inguraturik, Norteko haize hotz eta aspreak eraso egi-ten zidalarik...»	(42)
<b>otsein</b> 'neskamea, zerbitzaria'	«...Anastasio apaizak arduraz zaintzen duelako, Josefa <b>otseinaren</b> laguntzarekin.»	(10)
<b>otzan</b> 'mantso / uso'	«Badaezpadaere parkeetako <b>otzan</b> eta herabetiei begiratzen diet, haietako bat ote den jakiteko...»	(71)
<b>ozpel</b> 'ainube,laiotz(egukirik gabeko	«...parea <b>ozpel</b> batetik nekez igotzen den ezker aihenaren moduan.»	(16)
<b>pardeltxo</b> 'zakutotzoa'	«...ez zegoen Kurtzetako inor plazan, Mikaela joan zenean eskuan <b>pardeltxo</b> batekin...»	(70)
<b>parol</b> 'harrokeria (?)	«...gaztea zela beltzez jantzita egoteko eta horrelako <b>parolekin</b> enbauptatu nahian.»	(26)
<b>patrika</b> 'poltsiko, sakela'	«Edaten zuten ugari ondoren, kanpotarren <b>patrikatik</b> ordainduta.»	(97)
<b>pegar</b> 'pitxar, buztinezko ontzia'	«Berak gordetzen du memoria, buztinezko <b>pegarrak</b> ardoa gordetzen duen moduan, gero eta jakintsuago eginaz.»	(17)
<b>pendiz</b> 'aldats, malda'	« <b>Pendize</b> bat aukeratzen nuen eta hantxe ibiltzen nintzen, ohol baten gainean irristatzen.»	(58)
<b>pentsu</b> 'pentsamendua'	«Orain, <b>pentsutan</b> hasiz gero, elurra ahantziaren parekoa dela iruditzen zait.»	(59)
<b>pentze</b> 'belardia'	«Jakín banekien Otamunoko <b>pentzetako</b> sarobean ardiekin egon ezean inguru haietan ibiliko zela (...).»	(25)
<b>pertxenta</b> 'ederra eta galanta'	«Zutik zeuden mimosa eta almendroak, <b>pertxentak</b> intxaurren...»	(111)
<b>piko</b> 'aldats gora, malkartsua'	«Han aldapa bat hasten da, <b>pikoa</b> zatirik handienetan eta errebuelta itxiek...»	(9)
<b>piper egin</b> 'sasieskola egin'	«Horregatik <b>egiten genuen piper</b> elkarrekin.»	(44)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>piri-piri</b> 'zara-zara'	«Abendu hotza zen, elurra <b>piri-piri</b> ari eta...»	(39)
<b>piura</b> 'itxura'	«...esan zion tabernariak halako <b>piuran</b> ikusi zuenean.»	(29)
<b>portunatu</b> 'suertatu, elkartu'	«Lorategian <b>portunatzen</b> ziren katu eta ketemeak zelatatzen zituzten ...»	(44)
<b>saihets</b> 'alboan'	«Eliz <b>saihetsean</b> etxe handi bat dago...»	(10)
<b>samats</b> 'ongarria'	«Kurtzetarrek su eman zieten zelaiei, sikiera <b>samatsa</b> izan zedin.»	(94)
<b>samindu</b> 'garraztu, mindu'	«...baina horrek ez zuen <b>samintzen</b> , bere etsipena aspaldikoa baitzen...»	(20)
<b>sapato</b> 'zapatua, larunbata'	«...zazpiretako jotzen ditu ezkilak goiznabarreko mezatarako, arrats beheran errosariorako, <b>sapatoan</b> bezperetarako eta domekan...»	(10)
<b>saroe</b> 'ardiak biltzen diren toki berezia'	«Jakin banekien Otamunoko pentzeetako <b>sarobean</b> ardiekin egon ezean inguru haietan ibiliko zela...»	(25)
<b>sarraskitu</b> 'triskatu'	«Paolok bere ardiak <b>sarraskituta</b> ikusi zituenean...»	(49)
<b>sutaska</b> 'sutondo, sutegia'	« <b>Sutaska</b> piztuta eta sutan epurua, gar urdinetan erreaz.»	(84)
<b>tapaki</b> 'manta'	«...arreo: lihozko bi izara pare bordatutakoak, artilezko bi <b>tapaki</b> ...»	(21)
<b>tenkatu</b> 'tentsatu, tente jarri'	«Eskopeta kargatu eta oilarra <b>tenkatu</b> zuen, disparatzeko prest utziaz.»	(81)
<b>tinko</b> 'irmoki, gogor'	«Bere ohiturari <b>tinko</b> eutsiz aitaren ezpainetatik ez zen hitzik irristatu bidean joan ginen bitartean.»	(14)
<b>trumilka</b> 'trolepean, motroiloan'	«Hala ere min handiagoa ematen zidan errekreotara atera eta nire atzetik <b>trumilka</b> iristen zen hitz batek...»	(43)
<b>tupustean</b> 'bat-batean, ustekabean'	«Kurtzetar batzuek ere probatu zuten eta <b>tupustean</b> ume bihurtu ziren...»	(32)
<b>tutu</b> 'zuloa'	«...jakin zitekeen odola izoztuta geratu zitzaiola, zainetako <b>tutuetan</b> .»	(39)
<b>txankamalo</b> 'txorimalo'	«Gizona ez zegoen eserita, <b>txankamalo</b> bat baizik, gizonaren jaka eta prakekin.»	(81)
<b>txintik atera</b> 'soinutxo bat atera'	«Aitonak ez zuen <b>txintik atera</b> baina bere aurpegian irakurriz gero jakin zitekeen...»	(39)
<b>txosperriko</b> 'sagardo berria'	«Ura, hiriko Marta. Behin ere ez berdina. <b>Txosperrikoa</b> batzuetan eta orduan ene eztarrian freskura-hondarra lagatzen zuen.»	(18)
<b>txotxeko sagardo</b> 'upelatik harakoa, barrikatikoa'	«...ardo gorria, edo <b>txotxeko sagardo</b> edaten zuten bitartean.»	(26)
<b>uhar</b> 'uholdea, uriola'	«Txosperrikoa batzuetan eta orduan ene eztarrian freskura-hondarra lagatzen zuen. <b>Uharra</b> besteetan eta orduan berarekin eramaten ninduen.»	(18)
<b>unatu</b> 'nekatu, akitu'	«...eta <b>unatuta</b> nagoenean honaxe etorriko naiz deskantsatzera".»	(20)
<b>urki</b> 'azal zuriko zuhaitza'	«... <b>urkiek</b> beren eskuekin eraikitzen duten etorbide motz eta ordoki baten atarian.»	(9)
<b>urretxindor</b> 'txori mota bat (ruiseñor)'	« <b>Urretxindorrek</b> urtero etortzen dira beren kabiak erlartzetan egiteko...»	(10)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
<b>usna</b> 'usaina somatzeko ahalmena'	«Ez daukak txakurkumeen <b>usnarik</b> .»	(44)
<b>usnatu</b> 'somatu, igarri'	«...arriskua hurrean <b>usnatzen</b> duenean bere forma narrastia hartzen du, azaleratuz.»	(39)
<b>uzkur</b> 'mesfidatia, mesfidantza duena'	«Gizon ixil, herabeti, <b>uzkur</b> , kopetilun, zipotza.»	(12)
<b>xextroso</b> 'baragarria, zeharo baldresa'	«Auzoan ez zuten maite. Xitala eta <b>xextrosoa</b> zelakoan...»	(25)
<b>xital</b> 'zitala, gaiztoa'	«Auzoan ez zuten maite. <b>Xitala</b> eta xextrosoa zelakoan ...»	(25)
<b>zabarki</b> 'trakeski'	«...pintura markak zabaltzen dira <b>zabarki</b> paretetan zehar, armiarma handien legez...»	(10)
<b>zahagi</b> 'zahatoa'	«Ardoa edaten zuten majo <b>zahagitik</b> ...»	(33)
<b>zaingorri</b> 'kuskula / sasi, laharra'	«...jaten zutena belarra zela, mendietako <b>zaingorri</b> idor hori...»	(49)
<b>zakar</b> 'trauskila, latza'	«Txikia zen, azal <b>zakarrekoa</b> ...»	(45)
<b>zantzu</b> 'aztarna, seinale, ezaugarria'	«Udaberri zenean hantxe egoten nintzen ni <b>zantzuan</b> eta Mikaela agertzen zenean korrika aldegiten genuen...»	(44)
<b>zemaika</b> 'mehatxuka'	«Ondoren sasoian zeuden mutil guztiak eramatearekin ibili ziren <b>zemaika</b> .»	(39)
<b>zendu</b> 'hil'	«Ni mundura jaio nintzen egun berean <b>zendu</b> zen ama Margarita.»	(19)
<b>zerren</b> 'papera... jaten duen harra'	«...gehienak marinelen kontuei buruzkoak, larruz enkoadernatuta eta batzuk <b>zerrenak</b> zulatuta.»	(11)
<b>zilipurdi</b> 'txiribuelta, itzulipurdi'	«Semeetako besteak zakurra hartu zuen eta aro batetik pasarazi eta <b>zilipurdiak</b> egitera behartzen zuen.»	(52)
<b>ziplo</b> 'bat-batean, supitoki'	«Orduan <b>ziplo</b> erori zen.»	(81)
<b>zipotz</b> 'burugogorra'	«Gizon ixil, herabeti, uzkur, kopetilun, <b>zipotza</b> .»	(12)
<b>zirkin</b> 'mugimendu txikia'	«Edadetuek ere ez zuten <b>zirkinik</b> egin semeak geratu zitezen.»	(95)
<b>zizare</b> 'harra, kotxoa'	«...arrak ematen zion jaten: <b>zizare</b> bat edo beste...»	(46)
<b>zoritu</b> 'heldu, umotu'	«Ama Margarita, loretu baino lehen <b>zoritu</b> zena.»	(18)
<b>zuku</b> 'likidoa'	«...gorputz-atal guztiak azukre eta kanelaz eta karamelo errearen <b>zukua</b> zigurtzen zizkiola.»	(61)
<b>zurumurru</b> 'esamesa'	«...berehala zabaldu ziren <b>zurumurruak</b> ...»	(74)
<b>zurtuta</b> 'harrituta, txundituta'	«Eta zentzudunak ziren eta tabernara joaten zirenean bertako lagunak <b>zurtuta</b> uzten zituzten, esaten zutenarekin.»	(32)